



Erabakitzekeo eskubidea aldarrikatu du LABek

TOLOSALDEA ▶ Langilearen
Egunean jende ugari bildu zen
LABek deitutako ekitaldietan

SALAKETA ▶ «Lan baldintza
txarrek eraildako langile
kopuru altua» salatu zuten ▶ 2



NAIARA GARZIA



**Euriak bustita, baina festa
giroan egin dute, aurten
ere, larreen irekiera**

ABALTZISKETA ▶ Jende ugari hurbildu zen
Larraitzera abereak nola igotzen zituzten
ikustera; artisauek postuak jarri zituzten ▶ 3

J.M. AZPIROZ ▶
JEIKI KORUKO KIDEA



N. GARZIA

«Orkestra
batekin abestea
gustatuko
litzaiguke» ▶ 4-5



ORIXE
BAILARAKO
ESKAINTZARIK
ZABALENA

BATXILERGOA
Tecnologia
Natura eta Osasun Zientziak
Gizarte eta Giza Zientziak

ORIXE
Bigarren Hezkuntzako Institutua

943 65 13 87
E-mail: 012990aa@hezkuntza.net www.orixe.net

Aurrematrikula: Babxilergoa: apirilaren 23tik maiatzaren 4ra

LANGILEAREN NAZIOARTEKO EGUNA ▶

LABek erabakitzeke eskubidea aldarrikatu du irtenbide bezala

LAB sindikatuak Tolosaldeko eta Goierriko langileak manifestazioan elkartu zituen Langileen Eguna ospatzeko



Euripean egin ziren LABek deitutako maiatzak 1eko ekitaldia eta manifestazioa Tolosako kaleetan. A. IMAZ

ASIER IMAZ

Atzo Langilearen Nazioarteko Eguna izan zen, Maiatzaren Lehena, hain zuzen ere. Eskualdean Langile Abertzaleen Bata-suna izan zen bilkura antolatuzuen bakarra. CCOO, UGT eta ELAk, azken honek Bilbon, euren antolatutako ekitaldi nazionalan hartu zuten parte. Tolosan elkartu zen LAB sindikatua Langileen Eguna ospatzeko, «nahiz eta ospatzeko gauza gutxi izan». Atzo eguerdian, euria egin arren, jende ugari bildu zen lehenik manifestazioan eta ondoren Plaza Berrian egindako ekitaldi politiko-sozialean.

Goizeko 10:00etan irten zen Urretxutik LAB sindikatuaren kotxe karabana. Goierritik barrera herriz herri igaro ondoren, 12:00etan iritxi ziren Tolosara autoak. Ondoren Triangulo plazan elkartu ziren bi eskualdetako langileak. *Autodeterminazioaz Euskal Herria Gorrira* aldarrikatzen zuten pankarta eskuetan zutelarik, «aldaketa garaiaren aurrean

gaudela» azaldu zuten tolosako kaleetan ibili ziren langileek.

Manifestazioa Plaza Berrian amaitu zen. Ondoren, ekitaldia burutu zuten. Jexux Mari Mujika, eskualdeko arduradunaren esanetan, «nolabait, Euskal Herrian udaberria datorren moduan, sindikatu barruan ere udaberria badatorrela azaldu nahi izan dugu. Ekitaldian hitz egin duten pertsonak, gazteak eta berriak izan dira, aurrera begira egiten ari garen apustuaren barruan kokatzen baitugu gaurko ekitaldia ere». Olatz Amiano, Oihana Lopetegui eta Igortz Badiola izan ziren gerturatu



zirenei zuzendu zitzaizkienak. Azken urteetan agintean dauden alderdien politikak bultzatuko «prekaritateak eraildako langile kopuru altua» salatuz ondoren, irtenbide bezala, «autodeterminazio eskubidea eta garai berrien» aldeko apustua izan zituen ardatz ekitaldiak. «Euskal Herriak hitza eta erabaki ahal izateko eskubidea» izan behar duela aldarrikatu zuten sindikatu abertzaleak. Izan ere, «argi dugu Madrildik etortzen diren lege, dekretu eta erreformek estaturako balio ez baldin badute, Euskal Herriko langileentzat are gutxiago balio dutela». Eusko Jaurlaritzaren «ahalmen eza» ere agerian utzi nahi izan zuten agerraldian, «ez maila politikoan ezta sozialean ere ez baitu ahalmenik».

Internazionala eta Eusko gudarriak abestuz amaitu zen ekitaldia Tolosan.

JEXUX MARI MUJIKA ▶ LAB-EKO ESQUALDEKO ARDURADUNA

«Tolosaldeko enpresarik handiena Tolosako udaletxea da»

Lanez gainezka zebilen atzo Jexux Mari Mujika *Mari* (Iruña, 1956), LAB sindikatuko eskualdeko arduraduna. Maiatzaren Lehena izanik, Chicagotik gure eskualderako langile klasearen bidaiaz mintzatu zen.

Nola bizitzen duzu Langilearen Nazioarteko Eguna?

Egun hau 1886ko maiatzaren 1ean sortu zen, Chicagon (Ameriketako Estatu Batuak) gertatutako erailketa batzuen ondorioz. Bertan langileak 8 orduko lan egunaren alde borrokan zebiltzala, poliziak beti bezala, jarrera bortitzarekin erasotuz, atxiloketa ugari egi-teaz gain, 6 langile erail zituen, afusilatu, hain zuzen ere. Haiek bezala, guk ere Euskal Herrian baditugu gaur egun borrokatze hainbat arrazoi. Gaurko manifestazioaren ibilbidean dauden 43 silueta borrokatu behar diren adibide garbiak dira. Iaz lan istripuen ondorioz 129 langile hil ziren eta aurtur jada 43 doaz.

Eskualdeko lantegien egoera ikusita ere, bada zer borrokatu?

Gure ustez Tolosaldeko egoera oso larria da. Azken urteetan ekonomikoki gainbehera nabarmen batean sartuta dagoela argi ikusten dugu. Adibide garbiak daude, azken lau urteetan enpresa oso garrantzitsuak alde egin dute edo itxi egin dituzte, ondorioz ehunka lanpostu galdu dira. Botere politiko eta administrazioaren aldetik egoera honen inguruan aipamenik ez da egin, eta horrek asko harritzen gaitu. Pargintza zikloa bukatutzat eman behar baldin badugu, nola hala etorkizunari begira, zerbait eskaini beharko zaio Tolosaldeari. Horrela ez bada,



A. IMAZ

herri oso polit bat izango da, bai; Txuleta eta Garagardo Festarekin, Txontxongilo eta Abesbatza Lehiaketarekin baina, ekonomi aldetik hilda geratuko da.

Zel irtenbide proposatzen duzue?

Apattako industrigunea sortu zen adibidez, baina honek ez du enplegu berririk sortu. EAJren azpijoko ekonomiko honek berokapen bat besterik ez du ekarri. Hau oso argi ikusten da gazteen kasuan, aurrera begira apostu egin dezakeen proiektu enpresarialik ez eta, gazteek eskualdea utzi eta Goierri eta Donostialde-ira joan behar baitute lanera. Irtenbide zaila dago, baina behingoz agente politiko sindikal eta sozialak, Eusko Jaurlaritza, Diputazioa, udaletxe eta enpresarioak barne, apostu estrategiko baten behararen inguruan, eseri eta ausartu beharra daukagu. Goierri adibidez, eskualdeko motor egin duten kooperatibak aurkitzen dira, guk ez dugu hori. Hemen adierazgarria eta lazarria, Tolosaldeko enpresarik handiena, Tolosako udaletxea izatea da. ◀

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

ABALTZISKETA ▶ NEKAZARITZA



Aralar. Abereek Aralar mendian emango dituzte datozen hilabeteak. Atzo abeltzainek mendira bota zituzten eta urriaren 12ra arte haien bizilekua izanen da. N.G.



Larreen irekiera. 12:00ak aldera bi suziri bota ondoren, ataka ireki eta zaldiek eta behiek urtero bezala mendira jo zuten. N.G.



Euria eta jendea. Goizetik hasi eta egun guztian artetu ez zuen arren, jende ugari bildu zen Larraitzen festaz gozatzera. Horretarako, bi aparkaleku prestatu zituzten auzo honen sarreran. N.G.

Abereak Aralarra itzuli dira

Jende andana bildu zen Larraitzen atzo larreen irekiera festa ikustera

NAIARA GARZIA

Eguraldiak ez zuen batere lagundu atzo, eta Larraitz inguruko belazeak euriz aseak egon arren, ez zuen egun osoan artetu. Halere, jende asko hurbildu zen aurtengo Aralar larreen irekiera ikustera, eta bidenabarrean, ekimen horren itzalean antolatzen den jaiaz gozatzera.

Antolatuta zeuden ekitaldi asko bertan behera utzi behar izan zituzten atzo. Mikel Almandozen zaldi-hezte erakustaldia burutu zuten lehenengoa izan zen, eta aldi berean Mari Jose Sardon harri-jasotzailea ere aritzeko zen arren, azkenean zaldien erakustaldia egin zuten soilik. Sarako Xanoren makil-dantza emanaldia eta Nafarroa eta Iparraldeko abeslari taldea izan ziren bertan behera utzi zituzten beste ekitaldiak.

Gainontzerakoan, Jexuxen Jaspának giroa epeldu zuen bai eguerdian, baita arratsalde partean ere, eta Alaitz Sarasola eta Bixente Gorostidik ere ber-

tso saioa egin zuten, goizean eta arratsaldean.

Larreen irekiera atzeratu egin zen, 12:00ak aldera arte. Ordurarte, behiak eta zaldiak itxitura batean izan zituzten. Larraitzeko abeltzain batek azaldu duen bezala, «mendira bota baino lehen hona ekartzin ditugu, jendeak abereak ikusi ditzan». Suziriak entzutearekin batera, Aralar aldeko ataka zabaldu eta hantxe joan ziren denak, mendi aldera, urriaren 12ra arte. «Animaliak mendira joateko desiratzen egoten dira. Askatasuna harrapatzeko irrikitan egoten dira. Ikuiluan makila ikusten badute eta eguraldi on xamarra egiten badu, marruka hasten dira», dio abeltzainak. Uda guztian bertan egoten dira. «Maiz igozten gara zer moduz dabilzan ikusteko, beren gora-beherak izaten baitituzte. Zezena nola dabilen ere kontrolatu behar izaten da». Urrira arte animaliak mendian egongo diren arren, baserritarren lanak ez du atsedenik. «Orain belarra



Artisauak. Atzokoa animalien eta artisauen festa izan zen. Saskiak, aulkiak, ukenduak, artilea, ehunak... ikusteko aukera izan zuten bertara hurbildu zirenek. Argazkian bi artisau buru-belarri lanean. N.G.

bildu eta bolak egin behar ditugu, neguan jana izan dezaten».

Zenbait ekitaldi bertan behera gelditu ziren arren, artisau postu ugari bildu ziren atzo Larraitzen: gazta, ukenduak, taloak, ehunak, artilea, saskiak... 15 postu inguru izan ziren osotara eta artisauak lanean aritu ziren. Bertara hurbildu zirenek Villabonatik eto-

rritako saski egileak ikusi ahal izan zituzten, baita Gabiriatic etorritako abarka egilea ere. Zaldibiko artisauak ere artzaiarentzako kapa nola egiten den eman beharreko pausoak erakusteko postu dotorea jarri zuten.

101 urteko artisaua

Baina beharbada artisau deigarriena 101 urteko Joxe Oleriaga izan zen. Joxe Antonio

Irastorza Enirio-Aralarko basozainak azaldu duen bezala, «Joxe garai batean Aralarren ibilia da eta atzo gazta egiten aritu zen».

Irastorzak atzoko egunaren balantzea egin du. «Saltzaileei kalte egin die eguraldiak, baina bestela, gustura gelditu gara. Nik faltan beste probintzietako jendea bota dut, edo beste zonalde batzuetakoa. Orokorrean inguruko jendea besterik ez baita etorri».

iragarki laburrak ▶

LANA
Zerbitzaria. Tolosan taberna baterako zerbitzari bat behar da lau orduz lan egiteko.
635 74 52 91 / 943 69 43 13.
Sukaldaria. Sukaldaria behar da Villabonan. 943 69 19 33.

SALGAI
Etxebizitza. 3 logelako etxebizitza eguzkitsua, bista ederrak, atiko gela eta trastelekua. 34.800.000 pzt. 657 77 00 85.

MUNAZABAL altzariak
• 500 m² bi solairutan
• Bertako okasiozko altzariak
• Katalogoz kanpoko kitapena eta prezio bereziak
Tel.: 943 65 17 61
San Inazio 2
TOLOSA
Koltxoiak, somier-ak, sofak, lasaitasunerako...

Tolosako etxe batean barneko langile bezala lan egiteko emakumea behar da
Tel.: 677 591 621

JOXE MARI AZPIROZ ▶ JEIKI ABESBATAKO LEHENDAKARIA

«Udaberrira begira orkestra batekin abestu nahi dugu»

Duela hiruzpalau urte korua berrantolatu eta ordutik lehendakaria da Joxe Mari Azpiroz

NAJARA GARZIA

Denbora zaila al daramakizu ardurazkoak?
Joxe Mari Azpirozek (Leitza, 1955), urte asko daramatza Jeiki abesbatzan, 1972. urtean sortu zenetik. Orain, koruak izan duen berrantolaketa eta gero, lehendakaria da. **Koruko lehendakaria zaren beharrez, zela diru zure egiteko beharrez?**
Gauza administratiboetaz arduratzen naiz. Maite Perusnaren laguntzarekin.

Denbora zaila al daramakizu ardurazkoak?
Jeiki abesbatza duela lau urte berrantolatu zen eta orduan hartu nuen egun dudan ardura bari.

Mola gogoratzen duzu abesbatzaren hasiera?
Ilusioz beterik ginen. Gainera oso berria zen. Nik bogei urte nituen orduan, nire arreba, sartu zenean hamabost, eta gero jende heldua zegoen. Juan Kruz Azpiroz, Xeberi...



N. GARZIA

teak lanean... Eta orduan itzali egin zen.

Bat-bateko gauza izan du zuri?
Bai. Maila bat hartu genuen eta horri eusteko lan asko egin behar zen eta asko eman behar horrek esfortzu handia suposatzen zuen. Eta oso zaila zen. Baina gero jarraitu genuen. Santituzioetan, Gabonetan, eta horrelakoetan beti kantatu izan dugu. Elizkizunetan finkatu ginen, jehinbat.

Berrantolaketa honen ondorioz bertso emanaldiak eskaintzen hasi zurela.
Bai. Duela hiruzpalau urte geerotik emanaldiak ematen ditugu, elizkizunetatik aparte. Herriko zinemaren eman guren, udan, duela hiruzpalau urte, lehenengoa. Honetaz gain, 2007. urtera begira, Tolosa Nazioarteko Kantu Lehiaketan parte hartzea ere proposatu genuen, baina maila handia zegoela ikusi genuen eta pixka bat kezka egin ginen. Gainera kontuan hartu behar da bertan parte hartzen duten profesionalak direla, egu-

na kantatzen pasatzen dutela, eta hori ez da gure kasua.

Mola antolatzen zinenen berragrupamendu berrak?
Hori guztia antolatzen hasi ginen, izan dako guztiei gonbidapena pasa genuen, eta zerranda egiteko orduan, 50 pertsonatik gora etate zitazkigun, korutik lehen pasatuzkoak.

Aurreko urtean ezabat konpartze eman zenuen?
4 edo 5 emanaldi eman genituen. Leitza, Donostia, Urdainen eta azkenekoa Irufean. Gero kanpoan bazkalteza gustatzen zaigunetz, beste bat Elizaburun eman genuen. Nahiz eta elizkizunetako kantak ez abestu, adibidez Urdainen elizan kantatu genuen, baina Irufean ere, akustika hobea baita. Azken honetan Gabonetako abestak kantatu genituen, baina ez zen elizkizun bat izan, eliza batean eman guren kontzertua izaniz.

Zor abertu kantatu zenuen?
Lehen urtean, adibidez, Leitza, Mozarten 250. urtemuga-

Jeiki abesbatzak dagoeneko 35 urte bete ditu

Agrupacion coral de Leitza desagertu ondoren, 1972. urtean Jeiki abesbatza sortu zen. Hasi zenean, 45 ziren koru hornitako partaideak, nahiz eta aurrerago, zifra horrek gora egin eta 52 lagunera iritsi zen. Ofizialtasunean egindako ibilbideak hamar urte iraun zituen arren, koruak bizirik jarraitu zuen, bertako eta inguruko herrietan abesten jarraitu baitzuten, elizkizunetan, batk bat.

Bere emanaldi garrantzitsuen artean Irufeko Gaya-

ren egindako hirurak aipatu behar dira, baita Loidiako babilan eskaintakoa ere. Azken organista eta Gavilanes pianojolearekin. Husetz gain, Lizarrako Erdi-aroko Astea delakoan ere aritu ziren. baita Madrildo San Permin elizan eta Bilboko Arriaga antzokian ere.

Jeiki abesbatzak zuzendari bakarra izan du zoru zenetik: Pontoxtu Irurtia. Musika munduko aurreko pausok Donostiako kontzertuoriotan eman bazituen ere, gero Iru-

fenekora joan zen. Bertan Kapera Maisuko ikasketak burutu zituen. Halere, urte hauetan guztietan, bi laguntzaile izan ditu bere ondoren: Donostiako Miren Zabalbeskoas eta Elena Balutua.

Ofizialtasunean egindako ibilbidean, Jeiki abesbatzak hainbat lehiaketetan parte hartu zuen, bere zuzendari ikasketako aukera paregabeak iruditzen baitzizkizkion. Ejea de los Caballerosen lehenengo saria jaso zuen. Tolosa Abesbatzen Lehiaketara bi al-

diar aurkeztu zen, bietan laugarren postua lortuz. 1982an Galesko Langollenen ospatzen den Lehiaketa batean hartu zuen parte. 36 koruren artean zortzigarren geldituz, nahiz eta polifonikako obran bigarren postua lortu zuen.

Hainbeste urteren ondoren, oro berri bati ekin dio Leitza Jeiki abesbatzak, bertzepean osatutaz den egoi bati. Berrantolaketa honen ondorioz koruko kideak buru-belarri dabilza etengabe eta emanaldietan. ▶



Jaja Laila eta berriaren eskutik
Fermin Muguruzak prestatutako musika bilduma bikaina

'Musika Munduko Jolastokian'

Maiatzaren Setik aurrera larunbatero disko bat kioskan

+ 5,30 €

AKURPA OZZALU, BIZI OUSKARTEA **berria**

hirukide
gaiterri
jesuitinok
eskolapiloak

www.hirukide.org
TEL: 943 670 211

30 Anniversary International **aldoko sailoa**

Larku

Bertso jaialdia

maiatzak 4, 22:00etan
Tolosa
Leakor Antzokia

ALBIZTUR ▶ GIZARTEA

Bi gurpileko antigualak

Motoak historia handiko ibilgailuak dira; hala, batzuek, egungoak baino nahiago izaten dituzte duela 60 urte fabrikatutako motoak; horren adibide, Tolosaldean Bost moto zaleen elkarte dago

ESTI EZEIZA

BMW, Vespa, Toyota edota Suzuki bezalako izenak aipatuz gero, askok eta askok segituan ohartuko dira gaur egungo motoen izenak direla. Baina, egun ez ezik, Bigarren Mundu Gerra aurretik ere aurki zitezkeen moto hauek. 1939 baino lehenago egindakoak baitira. Garai haietako moto asko egun oraindik fabrikatzen dira, hala ere, beste asko, jada ezin dira aurkitu.

Motoak, orokorrean garairen arabera sailkatzen dira, eta mailaketa horren barruan daude gerra aurrekoak. Harley Davidson marken zaletuak ezagunak badira ere, eta hauen kultura oso zabaldua badago ere, antigualeko motoekin ere horrelako zerbaite gertatzen da.

Zaletu hauen esanetan, «moto zaharrak fidagarriak dira, baina askotan arazoak ematen dituzte, eta mantenu lan handiagoa exijitzen dute. Horren ordainetan, gehiago kostatzen bada ere, ibiltzeko garaian lortu daitezkeen sentazioak izugarriagoak dira».

Egungo motoekin zirrara eta emozio berriak lortzeko, gidariek abiadura ikaragarriak hartzen dituzte. Antigualeko motoekin aldiz, ez da hori helburua, aldapa baten aurrean, goraino helduko den edo ez ikustea baizik. Gauza bera gertatzen da autoekin, pertsona bat auto berri eta handi batekin 140 kilometro orduko abiaduran badijoa, gidariak ez du ezer berezia sentitzen, eroso doa. Aldiz, abiadura bera harrrapatzen badu auto zahar ba-

tekin, zirrara berezi bat sentituko du barruan. Bestalde, moto horren gainean doazenean, eserleku horretatik igaro diren pertsonak nolakoak diren imajinatzea gustatzen zaie gidariari. Baita, 60 edo 70 urte hauean, moto hori bera zenbat lekutatik igaro ote den, eta zer nolako historia izan duen pentsatzea ere.

Motoak industria hondarea dira, hala, hauek sortutako garaia, eta estatuaren egoeraren adierazgarri dira. Hauek ikusiz, nazioaren orduko egoera nolakoa zen asmatu eta jakin daiteke. Garai haietan ere, kalitate, erabilera, eta marka ezberdinetako motoak eraikitzen ziren. Gainera, hauek zituzten irtenbide teknikoak oso aurreratuak ziren. Dena den, merkatua ez zegoen orain be-

zain globalizatua, eta estatu bakoitzak bere motoak zituen, merkatua estatu mailara mugatzen zelarik. Honen ondorioz, lehia txikia zen, eta bestela salduko ez ziren motoak ere saltzen ziren. Honek ekarri zuen irtenbide teknikoak zabaltzea eta oso aberatsak izatea. Mekanikoki oso aurreratuak eta desberdinak ziren. Gaur egun ordea, motor eta pieza berdinak daramatzate marka eta modelu ezberdinetako motoek.

Amerikar eta europar motoen artean ere desberdintasun handiak zeuden. Lehenengoenak, handiak, kontsumo altukoak, erosoak eta distantzia luzeak egiteko prestatuak zeuden. Hala ere, Europakoak indarrez besteak baino eragin-korragoak ziren.

Orduan ere, neska eta mutilen motoen artean desberdintasunak zeuden. Emakumeenak «gonekin ibiltzeko eginak» ziren, horregatik, aurrean hankak ipintzeko tokia zuten, egungo Mobileteek bezala.

Urtekako sailkapenaren arabera, itzuli eta azoka ezberdinak antolatzen dira. Euskal Herriari dagokionean, Beasainen, Irunen eta beste hainbat tokitan egiten dira. Tolosan ere egiten zen lehen, baina jada ez da egiten.

Mende bateko historia

XX. mende hasieran Frantsek izan ziren moto ekoizle indartsuena, baina hau, urteak aurrera joan ahala aldatuz joan zen. Lehen Mundu gerrarekin, Britainia Handia eta



Urtean zehar, egun askotako hainbat bidaia egiten dituzte, hauetan denak batera taldean joaten dira ibilbide guztian zehar. HITZA

Amerikako Estatu Batuak indarra hartuz joan ziren. Europa mailan, frantsesek kalitate oneko motoak egiten jarraitzen bazuten ere, 30eko hamarkadatik aurrera, Ingalaterra bilakatu zen potentzia nagusia arlo horretan.

Bestalde, nazismoak Bigarren Mundu Gerra aurretik egin zuen aurrerapenaren ondorioz, eta lehiaren ondorioz, Alemanian ere, oso moto azkarrak eta onak egin zituzten garai haietan. Baina guda galdu zutenean alemaniarrek, beraien patenteetako gehienak ingelesen esku geratu ziren, eta azken hauek, alemaniar motoen kopia asko egin zituzten. Gerra ondoren Ingalaterra bilakatu zen ekoizle nagusi eta irtenbide tekniko berriak garatu zituzten.

Abiadurari dagokionean, 1920 urte bitarteko motoek 60 kilometro orduko abiadura hartu eta mantendu dezakete oraindik ere. 30 urte artekoek, 80-90 kilometro orduko, eta 40. hamarkadakoekin, 100-110 kilometro orduko abiaduran joatea posible da.

Moto zaharren elkarteak

Gipuzkoa mailan hiru moto elkarte daude, eta horietako bat Tolosaldean kokatzen da. Eskualdeko elkargo honek Bost izena du eta 35 pertsona inguruk osatzen dute. Gehienek gerra ondorengo motoak dituzte baina bakoitzak bere lehentasunak ditu. Adinari dagokionean, 50 urte ingurukoak dira gehienak.

Bosteko kideek, hilabetean behin edo, egun bateko irteera egiten dute Euskal Herritik zehar. Hala, 200 edo 300 kilometro inguruko ibilbideak egiten dituzte. Txandakatuz, kideetako batek antolatzen du bidaia, iragan abenduko, esaterako, Xalba Zubizarretak prestatu zuen. Ibilaldi honetan, Zelatunera igo ziren gosaltzera eta ondoren babarrun jatea egin zuten Albizturren.

Euskal Herrian ez ezik Europa mailan gisa honetako bidaia ugari antolatzen dira. Alpeak, Pirineoak eta abar zeharkatzen dituzte motorrean, eta hainbat egun behar izaten dituzte horretarako.

XALBA ZUBIZARRETA ▶ ANTIGUALEKO MOTOEN ZALETUA

«Jende askok afizio hau luxuarekin lotzen du, baina ez da horrela»

Txiki-txikitatik moto eta autoen artean ibili da Xalba Zubizarreta. Bere lanbideak motorrekin loturarik ez badu ere, edozein mekanikok baino hobeto eza gutzen ditu tramankulu hauek. Hala ere, denetan gustukoena II. Mundu Gerra aurreko motoak ditu, eta hauek konpontzen eta zaharbertzen ibiltzen da etxean duen tailerrean.

Nondik etorri zaizu afizioa?
Lehenengo anaia hasi zen Terrot markako Erusiar moto batekin. Gero beste bat ekarri genuen, eta pixkanaka gehituz joan gara.

Batik bat, nongo edo nolako motoak erosten dituzu?

Oso gustu zabala dugu, batzuek, denak marka berekoak erosten dituzte, BMWak, Harley-ak etabar. Baina guk zaharrrak eta bereziak diren guztiak onartzen ditugu. Hala ere, saiatzera gara, ekartzen ditugun moto berriak aurrekoetatik desberdinak izaten. Motorren sistema aldetik edo irtenbide teknikoari dagokionean, antzekoak baina aldi berean ezberdinak izatea elkarren artean.

Behin konpondu eta gero, zer egiten duzu beralekin?

Batzuek, konpondu ondoren ez dituzte erabiltzen, pena ematen dietelako. Hala, gurpilei plastikoa ipintzen diete ez hondatzeko, ez dute martxan jartzen olioak zikintzen delako... Baina niretzako zentzuzkoa da, ibiltzea. Ibiltzen ez den motorik ez daukagu, zentzuzkoa da, konpontzea, ibiltzeko. Batekin amaitzen dudana bezala, martxan jartzen dut, batera eta besteira joateko.



E. EZEIZA



Xalba Zubizarreta eta bere anaia Joxe Mari, tailerrean. E. EZEIZA



Alpetatik barrena antigualeko motoetan, irailean egindako bidaia bateko irudiak. HITZA

Erraza al da moto hauek konpontzea?

Mekanika gustatzen bazaizu, pixkanaka ikasiz joaten zara. **Jatorriz ziren bezala uzten al dituzue, hala aldatzen saiatzen zarete?**

Bai, lehen ziren bezala uzten saiatzen gara. Motoari ahalik eta oroginaltasun handiena eman nahi izaten diogu.

Moto hauen datuak lortzea erraza al da?

Originala ez bada ere, kopiak lortzen dira. Hala ere, txarrena da motoa den lurraldeko hizkuntzan idatzita daudela. Suedieraz, austrieraz...

Eta piezak nondik lortzen dituzue?

Oso zaila da. Gehiago kotizatzen diren moto batzuk daude, marka moderno gisa jarraipen gehiago izan dutelako-eta... Adibidez, Harley Davidsonak. Hauetako zaharrak asko kotizatzen dira, baita BMW-ak ere. Kasu hauetan erreplikak ere egiten dituzte, piezaz-pieza errepikatzen dituzte. Bestalde, azoka bereziak egiten dira, eta gainontzean, guk geuk egiten ditugu. Sekretua da oinarri on bat izatea, eta gero azoka nahiz internet bidez gainontzekoak bilatzen joaten gara.

Nola fabrikatzen dituzue hauek?

Tornu eta mekanikako piezak direnean erraz egin daitezke, baina fundizioakoak direnean, hauek oso garestiak dira, moldeak egin behar baitira. Kulata bat egitea, agian 1.800 euro kosta daiteke, eta ez du merezi.

Kalitate aldetik, oraingoak bezain onak al dira gerra aurreko motoak?

Kalitatez oso onak dira, baina

hauek duten arazoa da ea zein eskutatik igaro diren. Izan ere, askotan, oso mekaniko txarren eskuetatik igarotzen dira. Hobe da, 20 urtetan geldirik egon den moto bat hartzea esku batetik bestera ibili dena baino. Askotan gertatzen dena da, konponketak asko kostatzen direla, horregatik eskulana merkeago den estatuetara eramaten dituzte.

Garestia al da horrelako afizio bat izatea?

Jende askok afizio hau diruarekin eta luxuarekin lotzen du, baina ez da horrela. Beste batek telebista handi bat erosten gatastzen duen diru hori, nik honetan ematen dut. Ez da luxuzko artikulu bat, kontua da, ea zenbateko lana hartzen duzun berarekin. Lan handia eskatzen duen gauza bat da.

Lanbide bilakatu al daiteke afizio hau, hau da, etekinak ematen al ditu?

Antolaketaren arabera da, baina, errazagoa izan liteke agian marka bakarrarekin edo marka errazagoekin aritzen bazara. Baina denetik hartzen baduzu, eta gainera oso zaharra, hemen, ia ezinezkoa da. Ikuspuntu kulturalarengatik, oso zaila da, orduak hegan joaten dira, eta zaila da balio hori justifikatzea.

Egungo motoek baino gehiago kontsumitzen al dute?

Bai, gehiago erretzen dute, eraginkortasuna askoz ere txarragoa baita. Egun karburazio sistema moto txikietan bakarrik erabiltzen da, gainontzekoek injekzioa daramate. Arazo ekologikoak direla-eta, orain hobeto probeztatzen da erregaia. ◀

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Tolosa. Iturriza jubilatutako elkarteak irteera antolatu du Palma de Mallorcara ekainaren 3tik 15era. Pentsio osoa hiru izarretako hotelean, 395 euro (ez bazkideek 390). Informazio gehiago, 943 69 83 30 telefono zenbakian.

Tolosa. DYAK antolatuta, sorospen ikastaroa izango da maiatzaren 7tik 25era, astelehenetik ostiralera, 19:30etik 21:30era. Klase teorikoak eta praktikkoak. 75 euro. Izen-ematea, 943 46 46 22 telefono zenbakian.

Tolosa. Ulibarri eta Urrats eskualdeko egonaldiak antolatu nahi dituzte beraien ikasleentzako familia euskaldunetan. Familiek 620 euro jasoko dute hilabetero. Parte hartzeko deitu 943 47 45 47 zenbakira. Informazio gehiago aipatu telefonoz edo www.egonaldiak.net.

Ibarra. Bizi Nahi erretiratuen elkartearen 25. urtemuga dela eta, Izaskunera erromeria egingo dute maiatzaren 18an: hamaiketako, toka lehiaketa, meza, bazkaria eta dantzaldia. Autobusa ere jarriko dute. Izen-ematea, elkartearen bertan egin ahal da.

Tolosa. Laskorain Ikastolaren 40. urtemugan, ikasle ohiek afora antolatu dute hilaren 19rako Ferialekuan, 21:00etan. Txartelak salgai daude Ikatza, Iruña, Orbela eta Raku tabernetan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
 Leizta. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.
 Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 67 60 13.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-20:00. Tolosaldeko ahotsa (errepikapena).
 20:00-21:00. Irauli uhinak.
 21:00-23:00. Bide okerretik.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Literatura bultzatuz

TOLOSA ▶ Literatur Astea burutu dute Samaniego ikastetxean zazpigarren urtez, «partaidetza handiarekin»; berrikuntza ugari izan dituzte aurtengoan



Samaniego ikastetxeko ikasleak Literatur Astearen baitan eginko ekitaldietan parte hartzen. HITZA

ERREDAKZIOA

L iteratur Astea burutu berri dute Samaniego ikastetxean. Aurtengoa zazpigarren edizioa izan da, eta «partaidetza inoiz baino handiagoa izan da». Gurasoek, hezitzaileek, sukaldariek... hartu dute parte eta trebetasun bereziak (magia, p-rekin kontaktatuko ipuinak, mozoerokak, txotxongiloak, antzerkia...) izan dira ikusgai.

Berrikuntzei dagokionez, 3. ziklokoak kazetari lanetan ibili dira, eta *Argia* aldizkaria bisita ere egin zuten. Bestalde, irakurketa maratoin entzuten diren hizkuntzak baliatuz, grabaketa baten bidez *hizkuntz kiniela* egingo dute ikasleekin. Berrikuntza izan da baita, literatur astearen logo lehiaketa, eta 2. mailako Uxue Puerta izan da irabazlea.

Irakurgaiak bereziki aukeratu dituzte, hezkuntza sailak onartu duen proiektu globala onarri hartuta: euskararen normalizazioa, hondakinak, kulturartekotasuna, bizikidetzeta eta partaidetza izan dira zutabeak. Halaber, leku berezia egin nahi izan diote Kolonbiari hango eskola batekin senidetuta daudelako eta *Bibliomula* deituriko proiektua bultzatzen ari direlako. «Honen bidez, sentsibilizazioa landu nahi dugu errotik», azaldu dute.

«Literatur Astea sendotuta dagoela ikusirik, urtez urte horrelako berrikuntzak sartzen joango gara. Ikasleak asko motibatzen ditu eta hezkuntza komunitatea osatzen dugun guztion partaidetza bultzatzeko era polita da», diote.

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...